

GUREAK LANEAN, S.A.

BATZAR OROKOR ARRUNTA ETA APARTEKOAREN DEIALDIA

Sozietate honetako 2021-3-29eko Administrazio-Kontseiluak Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusia 2021eko ekainaren 28an, arratseko 13:00tan, lehen deialdian eta beharrezkoa baliteke hogeita lau ordu geroago bigarrenenean, deitzeko erabakia hartu du. Batzarra egoitza sozialean egingo da, Donostiako Illarra Bidea, 4 (Goienetxe finka), eta eztabaidagai izango da ondoko

GAI-ZERRENDA

1. 2020ko ekitaldiari dagozkion Sozietatearen eta bere sozietate-talde bateratuen Urteko Kontuak (Balantze, Galera eta Irabazien Kontu, urtean zehar ondare garbian izandako aldaketak jasotzen dituen egoera-orría, eskudiruen mugimenduen egoera-orría eta Memoria) eta 2020 urteari dagozkion Gestio-Txostena aztertu eta hala badagokio onartzea.
2. Hala badagokio, 2020 urteko emaitza aplikatzeko proposamenari onespena ematea.
3. "N.F. 2/2014"ko 51 artikuloreen Empresa Kapitalizatorako Erreserbaren Hornidura azterketa eta hala badagokio onartzea.
4. Informazio ez finantzaria eta Kudeaketa sozialaren Memoria azterketa eta hala badagokio onartzea. Arreta Okupazionalen emaniko ekimenak eta alor sozialean bideratutako neurrien Memoria.
5. Sozietatearen Administrazioaileen kargu-uztea eta berriak izendatzea.
6. Sozietatearen Auditoreen kargu-uztea eta berriak izendatzea.
7. Ahalmen-eskuordetzea
8. Galde-Espeak.
9. Batzarreko Aktaren onespena edo, hala badagokio, ikuskatzaileak izendatzea.

Kapital Sozietateko Legeko 197, 272.1 eta 272.2 artikuluetan ezarritakoa betez, deialdi honen ondoren edozein akziodunek berehalakoan eta dohainik eskuratu dezake Batzarraren iritzipean onespena emateko jarriko diren agiriak, Gestio Txostena eta Kontu-Auditoreen Txostena.

Kapital Sozietateko Legeko 287. artikuluan ezarritakoa betez, proposatutako estatutuen aldaketen testu osoa eta aldaketa horiei buruzko Administrazio Kontseiluaren txostena egoitza sozialean aztertzeko akziodun guztiek duten eskubidea ohartarazten da, baita dokumentu horiek entregatzea edo doan bidaltzea eskatzeko duten eskubidea ere.

Era berean, akziodun orok Batzar Nagusian legeak araututako moduan ordezkaturia izateko aukera du.

Donostia, 2021eko Martxoaren 29



KONTSEILUKO IDAZKARIAK
Maria Lopez Apodaca Andrea